

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Pasa den apirilaren 20tik Autonomia eta Mendekotasun Arretarako Sistemaren zentro eta zerbitzuetan lan egiteko 541 gaikuntza profesional daude

Azken bi hilabeteotan, zaintzaile profesionalak kontratatzeko laguntza berriaren ostean, eskaerak % 68,25 igo dira

Astelehena, 2019.eko otsailak 25

Apirilaren 20an, Nafarroako Aldizkari Ofizialean [1653/2018 Ebazpena](#) argitaratu zen, Mendekotasun Arretarako Sistemaren zentro eta zerbitzuetan lan egiteko gerokultore, zaintzaile, etxez etxeko laguntzaile eta laguntzaile pertsonaleko kategorietan ezohizko eta behin-behineko gaikuntzarako prozesuaren onarpenekoa, pasadan urriko Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren Akordioarekin bat etorritz.

Araudia indarrean sartu zenetik otsailaren 11ra arte 541 gaikuntza igorri dira, eta horietatik 457 ezohizko gaikuntzak dira. Gaikuntzak, kategorien arabera xehakaturik, hauek dira: % 59 (318) etxez etxeko laguntzaileak, % 28 (152) gerokultoreak, 66 desgaitasunen bat duten pertsonen zaintzaileak eta 5 laguntzaile pertsonal. Gaikuntza horien % 94 emakumeei dagozkie.

Gainera, azkeneko bi hilabeteotan eskaerak izugarri igo dira, batez ere etxez etxeko laguntzaileei dagokionez. Kategoria horretan emandako gaikuntzak % 68,25 igo dira aurreko 6 hilabeteetan igorritakoekin alderatuta. Zaintzaile profesionalak kontratatzeko laguntza berria indarrean sartzearekin batera gaikuntza-eskaerak areagotu dira, prestazio berri honetarako kontratatzen den pertsonaren gaikuntza profesionala egiaztatu behar baita nahitaez, ematen den zerbitzuaren kalitatea ziurtatzeko. Azken 10 egunetan soilik 126 gaikuntza berri igorri dira.

Ezohizko gaikuntzak lanbide-kategoria horietako batean lan egiten duten pertsonen esperientzia aitortzen du, baldin eta azken 12 urteetan 2.000 ordu lan egin badute gutxienez, edo, gutxienezko esperientzia hori lortu gabe, lan egin eta lanbide-gaitasunekin zerikusia duten 300 prestakuntza-ordu gutxienez egiaztatzen badituzte. Modu horretara, lurralde nazional osoan lan egiteko gaikuntza lortuko dute. Akordioaren arabera esperientzia hori 2017ko abenduaren 31a baino lehen eskuratu beharra zegoen. Era berean, 2017ko abenduaren 31n sektorean lan eginagatik ezohizko gaikuntzarako behar diren ordu eta/edo prestakuntza ez dituzten horientzat behin-behineko gaikuntza ezarri zen. Behin-behineko gaikuntzak lurralde nazional guztirako balio du, baina eskatzaileak 2022ko abenduaren 31ra arte egiten diren ebaluazio-prozesuetan parte hartzeko eta laneko esperientzia egiaztatzeko edo dagozkion profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza burutzeko

konpromisoa hartu behar du.

2017ko abenduaren 31n sektorean esperientzia egiaztatzen dutenek (lan egindako orduak) etxez etxeko laguntzaile, gerokultore, zaintzaile edo laguntzaile pertsonal kategorietan, Nafarroako Autonomia eta Mendekotasun Arretarako Agentzian gaikuntza eska dezakete (Gonzales Tablas kaleko 7 zenbakian), web-orriko eskaera-eredua eta eskatutako baldintzen egiaztatgiriak aurkeztearen bidez, [inprimakian](#) agertzen den eran.

Gaur egun, 2019ko otsailaren 11n, Nafarroako erakundeetan eta etxez etxe desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko profesionaltasun-ziurtagiriarekin 3.787 pertsona daude: 3.151 pertsona erakundeetan desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko eta 636 etxez etxe arreta emateko.

NLk arreta soziosanitarioko 44 ikastaro eskainiko ditu

Aurten, pertsona gaituen kopurua areagotzeko xedez, Nafar Lansarek (NL) arreta soziosanitarioko 44 ikastaro eskainiko ditu Iruñean, Lizarran, Tuteran, Tafallan eta Azkoienen. Guztira 660 plaza izango dira, 422 langabeei eta 238 lanean ari direnei zuzendutakoak:

Langabeentzat 27 ikastaro, honela banatuta:

- 11 ikastaro Iruñean: 8 ikastaro lehenengo seihilekoan eta 3 ikastaro bigarreanean.
- 6 ikastaro Lizarran: 4 ikastaro lehenengo seihilekoan eta 2 ikastaro bigarreanean.
- 6 ikastaro Tuteran: 5 ikastaro lehenengo seihilekoan eta 1 ikastaro bigarreanean.
- 4 ikastaro Tafallan: denak lehenengo seihilekoan.

Lanean ari direnentzat, berriz, 17 ikastaro aurreikusi dira: 12 ikastaro Iruñean, 4 ikastaro Tuteran eta ikastaro bat Azkoienen.